

## **~~Manifestua erreprodukzioa doakotasuna nonahikotasuna~~**

### **Eskaririk gabe ez dago negoziarik.**

Begiratu erakusketa hau osatzen duten artelanen irudiei: galdutako artearen polizia-fitxei atxikitako erreprodukzioak dira, baina haien kalitateak ez du errazten haien identifikazioa. Horrela galdera bat sortzen da, hots, zergatik egiten da obra horiek aurkitzeko bilaketa paradoxiko hori? Galdutako obraren erreprodukzioa pixelatuta eta monokromatiko erakusten da, haien ezaugarrien deskribapena zehaztugabea da, apropos, eta ez da aipatzen egilea nor den. Horrelako utzikeria ez da fitxategiaren gauzate trakets batengatik gertatzen; aitzitik, apatia eta grinarik eza adierazten ditu, eta bilaketak interesik eza eta porrota iragartzen ditu. Orduan, zein da bilaketari eusteko arrazoa? Artelan horiek nazioartean bilatzen dira, baina ez lapurtu egin zirelako, zeren delitu-ekintza hori preskribituta baitago kasu gehienetan, baizik eta balio handikoak direla adostuta dagoelako, eta horrek justifikatzen du haien bilaketa. Balio hori artearen merkatua sortzen duten eragileen iritzitik abiatuta osatu da. Artelanak ahaztu eta haien bilaketa baztertzeak, poliziaren apatiak nolabait iradokitzen duen bezala, artaren merkatuak haien inguruan ezarri duen balioari ukatzea ekarriko luke berekin, eta, hortaz, horrek kuestionatuko luke merkatua ahalbidetzen dutenen iritzia. Fikziozko polizia-jazarpenak errealitate-markagailu bat ematen dio artearen munduak bere existentzia eraikitzeko aplikatzen duen balio-iritziari.

Irudi horiei nahita ezarritako kalitate falta gogaikarri suertatzen da. Erakusketa hau osatzen duten obren erreprodukzio tekniko on batzuek obren artea babestu lezakete ia osorik, zeren eta, Jorge Islaren erakusketak frogatzen duen bezala, horrek ahalbidetuko bailuke obra horiek oraindik ere ikusi eta erakutsi ahal izatea. Desagertuta egon arren, ez dirudi ezer justifika dezakeenik haien fitxen utzikeria, zeren xehetasunez eta irudi-bereizmen handiarekin egin bailitezke. Badirudi, aldiz, asmoa izan dela artelan horiek ezabatzea, desagerraraztea, berez daukaten merkantzia izaera kenduta euren erreprodukzioak presentzia sasikoa, deseroso eta desegokia itzuliko balu bezala. Objektua ez dagoenean arteari erreserbatzen zaion tratu horrek eduki kritiko bat azaleratzen du artearen merkatuaren oraingo formaren aurrean.

Baina, nola funtzionatzen du merkatu horrek? Lehenik eta behin, artearen ekonomiaren funtzionamenduaz ohartarazi behar dugu; izan ere, ekoizpen-harremanen mekanismo bat da, bere eragileek -komenientziaz- ulertzen ez dutena. Salerosketa guztietan bezala, eskari bat eta eskaintza bat behar dira. Eskaintza artista-oste bat da, bere artelanak sortzen dituen eskariari saltzeko xedez; eskari hori, berriz, museo eta bildumagileez osatuta dago, horiexek baitira obra ordaintzen dutenak, bere prezioaren arabera. Salerosketa batek funtzionatu dezan, merkatu bat da beharrezkoa, eskaintzaileek eta eskatzaileek elkarren aurpegia ikus dezaten, merkantzia baloratu eta transakzioa ixteko. Merkatu hori bitartekariak egiten duten lanetik sortzen da: galeria-jabeak, enkanteak, arte-kritikariak, azokak, museoetako adituak, akademikoak, komisarioak, iritzi-hedabideak, ospea lortuta duten artistak eta fundazio publikoak... Euren iritzia ematerakoan, adostasun bat sortzen da artelan jakin baten balioaren inguruan, eta balio horretatik aurrera eskariak eta eskaintzak prezio bat ezar dezakete.

Lehen aurreratu dugun bezala, balioaren sorrera eraikuntza sozial bat da artearen eremuan, merkatuaren adostasunaren emaitza bat, bere garaiko une kulturaletik elikatzen dena eta artearen eragile guztien ekarpenaz sortzen dena, eragile bakoitzaren preskripzio ahalmena desberdina izan arren. Artista eta artezaleen ahotsak ugari eta askotarikoak dira, hainbestearino non nekez ulertu daitezkeen; horien aurrean, berriz, bildumagileak, artista ospetsuek, galeria-jabeek, komisarioek, akademikoek, adituek eta azokalariek badituzte euren ahotsa banan-banan entzutea ahalbidetzen dieten tribunak. Artearen diskurtsoaren parte-hartzean dagoen asimetria horrek azken horien alde makurtzen du balantza. Bildumagileak eta *establishment*a ez dira doilorrak, baizik eta interes jakin batzuk dituzten gizabanakoak, interes horiek bultzatuta zer egin behar duten garbi ikusten dutenak: prezioak ezartzeko boterea lortzea, oso desaraututa dagoen merkatu batean. Era horretan, merkatuko inefizientzia bat sortzen da, merkantziaren sorreraren kostua eskaintzaren bizkarrean uzten duena -artisten gainean-, eta salmentaren ohiz kanpoko mozkin eskariaren eskuetan -bildumagileen eskuetan-. Merkatuko sortzaileek jasotzen dute, soldata eta komisioen forman, emandako zerbitzuen mozkin horren zati bat.

Bere burua artearen sektorearen atal organiko gisa modu erosoan aitortzen duen kolektibo profesionalizatu horren aurrean, artista garaikidea aurkitzen dugu, zurrumbilo lehiakor batean murgilduta, *establishment*aren eta ekoizpenerako laguntzen arreta

lortzeko irrikaz, askatasun sortzaileak eskatzen duen bizi-idealarekin konprometituta. Bere dedikazio eta borondate sortzailearekin, artearen oraingo merkatuaren beharrak bultzatuta joritasun irrazionalez sortzen diren proposamenen fluxua berritzen du etengabe. Ospea lortuta duten artisten frakzio txikia ez da inola ere salbuespena; aitzitik, ustiapen-eskema edo *Gestell* hori naturalizatzeko beharrezkoa den sinbologia dira. Artista gehien-gehienek ez dute lortzen ustiatzeko baliabidea izate hori gainditzea, eta ahaztuta geratzen dira, eurentzat, euren obrarako lortu nahi duten garrantziaren esanahiaren tranpan, iristeko dagoen aitortzaren promesean harrapatuta.

Paul Valeryk ohartarazi zuenez, erreproduzio teknikoak modu miragarrian aldatu zezakeen artearen nozioa bera, baina hori ez zen izango -Walter Benjaminen hitzetan- “artelanaren onespina” atrofiatzeko ahalmenagatik soilik, bazik eta baita artistaren tragedia iraultzeko indar faktikoagatik ere. Arte garaikideak ahalbidentzen du originalaren kokapenaren eta orainaren benetakotasunaren kontzeptua gainditzea. Ikuslearen begiradan, artistaren asmoan eta artelanaren antolaeran eraikitzen da artelan garaikidearen zentzua, bere benetakotasuna bere garaiko bizitze-formarekin eguneratuz. Hirukote horretatik –asmoa, antolaera eta begirada-, artearen merkatuak lortzen du begiradan eragin iraunkorra mantentzea, nahiz eta, oraindik ere, *establishment*aren aginduetatik sortutako hezkuntza estetiko oso barneratuta duen, erakundeek eta hedabideek modu kritikoa hedatzen dutelako. Arte garaikidera zuzendutako begirada ez dator, berez, publiko orokorretik; izan ere, artelanarekiko bizikidetzaren ematen duen hezkuntza estetikorik ez duenez, nahasmenduz behatzen du eta axolagabekeriak jasotzen du arte hori. Publiko orokorraren interpretazioa oztopatzen duen gabezia semantiko horri buelta ematea da artista salbatuko duen lan nekeza.

Aro garaikidean, arteak ez du oraindik ere esploratu erreproduzioaren baitan dagoen ahalmen iraultzaile sakona; izan ere, objektu bakarrari aurre eginez, horrek bidea ematen du artearen oraingo merkatuak pertsonen bizitzak bete ditzen, askotariko sorkuntza-lan artistiko irisgarri eta doakoekin, eskaintzaren egitura betirako aldatuz. Artearen erreproduzioa, doakotasuna eta nonahikotasuna, prestakuntza artistikoari eskala handian laguntzeko; horri esker, artistak aliatu ahaltsua lortuko du balioaren inguruko adostasuna ezartzeko ahalmena oraingo merkatuaren sortzaileei kentzeko.

Artistek beren gain hartzen dute jadanik artearen kostua, euren dedikazioarekin eta erakunde publikoen, mezenen eta senideen aldetik lortutako baliabideekin; bada, orduan zer eragozten die euren ekoizpena biderkatzea, eskuratu nahi duenari oparitzeko? Obra baten unitate kopuruak ez du balio artistikoan inpakturik izaten, baina bai eragozten du milaka artistei balioa ukatzen dien eta haien existentzia artistikoa estutzen duen artearen merkatuaren sorrera. Horrela aterako dira obrak, euren formatu guztietan, trasteleku, biltegi, depositu eta etxebizitzetatik, hots, errentagarritasunaren zain dauden bitartean gordeta dauden lekuetatik. Merkatuarekin bere oraingo forman beharrezkoa den lankidetzara hori apurto behar da, zeren sarriegitan hainbat eta hainbat obra suntsitzen baititu azkenean, interes komertzialaren faltagatik. Merezi du mundua aurkitzeko eta goitik behera aldatzeko aukera bat ematea.

Objektu artistikoa da, agian, masei zuzendutako ekoizpen prozesuagatik oraindik ere iraultzailea ez den sorkuntza kulturalaren azken sektorea. Inprimategiak zientzia irauli zuen, zeren jakintza kendu baitzien egitura feudalei, bere izaeraren ezjakintasunean bizi zen hirugarren estamentu bati helarazteko –jakintzak babes erreten moduan funtzionatzen zuen egitura haientzat ordura arte-. Musikak eraldaketa erradikala izan zuen erreproduzio teknikoagatik, masak balio musikalaren adostasun heterogeneora gehituz eta musikaren ekonomiaren hedapena ahalbidetuz, eta, horren bidez, musikariak eta teknikariak profesionalizatu. Hain zentzugabea izango ote litzateke sarrera kobratzeaz pentsatzea banakako erakusketa bat bisitatzeko, hiriko antzokian musika kontzertu bat ikusteko egiten den bezala?

Nolanahi ere, objektu artistikoak erreproduzio ugariak, doakoa eta nonahikoa izatearen aldeko mugimendu horrek eragozpen handiak aurkitzen ditu aurrez aurre.

Lehenengoa –eta premiazkoena- da sortzaileak artearen oraingo merkatuak planteatzen dion arrisku berbera gainditu beharko duela, hots, bere jardura artistikoa betikotzeko beharrezkoak dituen baliabide materialak eskuratzea. Artistak biztanleriaren hezkuntza estetikorako egiten duen ahalegin indibiduala gizarteak ordaindu behar duen politika publiko deszentralizatu bat da. Elkarrentzako sostengua ondo dago, baina ez da aski; horregatik da beharrezkoa trantsizio hori ahalbidetzen duen mekanismo ekonomikoren bat lortzea. Erakunde publiko eta pribatuen laguntzek ezin jarraitu dezakete artistaren

dimentsio existentziala ahazten. Ezin atzeratuzkoa da erakunde horiek sorkuntzan lan egiten duen gizabanakoari ere ordaintzea, obraren ekoizpena soilik ordaindu beharrean. Badira artearen sustapen ekonomikorako politika publikoen eredu batzuk, inspiraziotzat hartu daitezkeenak, hala nola Frantziako *intermittence du spectacle*aren figura; izan ere, eredu horiek lagungarriak dira euren bizitza sorkuntza artistikora zuzentzen dutenek bizitzeko baliabideak eskuratu ditzaten. Finantza-merkatuetan transakzioei tasa bat ezartzea lortu den bezala, erresistentzia-kutxa bat irudikatu daiteke artistentzat, artearen oraingo merkatuari ezarritako zergetatik datozen baliabideez hornitua.

Ezin ahaztu daiteke, dena dela, masen iraultza guztietan basakeria dagoela zelatan. Artearen industria kultural bat eskala handian sortzeko mehatxua hortxe dagoen arrisku bat da. Kontua ez da artearen nozioa bera aldatuta geratzea, zeren artearen existentziabideak esploratzeko bitarteko bat besterik ez baita, baizik eta nozio hori galtzea ezagutzen dugun teknika menderatzen duen instrumentaltasunagatik. Walter Benjaminek teknikak arteari egiten zion mehatxua identifikatzen zuen bere garaian, “gizartea oraindik ez delako behar bezain heldua teknika bere organo bihurtzeko, eta teknika ere ez dago behar bezain landuta gizartearen indar elementalak menderatzeko”. Premisa horiek eta denbora hori iraungi egin dira. Azelerazio teknologikoa aro tekniko batera bultzatu gaitu, eta bertan errekurtsibitate teknologikoa potentzial soziala duten ezaugarri organologiokoekin eta hizkuntza-gaitasunekin azaleratzen da. Teknika modernoak horizonte kultural bakar batera daraman konbergentzia ezartzen du, eta horren aurrean arteak kosmoteknika ugaritan –Tuk Hiu filosofoak dien bezalazatikatzeko aukerarako baldintzak eskaintzen ditu. Sorkuntza artistikoak, algoritmo errekurtsiboak bezala, bidea ematen du kontingentzia eraginkortasunez xurgatzeko, bere proposamenaren efizientzia areagotzeko. Teknika, artea eta errekurtsibitatea erreprodukzioan: horixe da basakeriaren aurrean erreakzionatzeko proposamena.

**Kike Rioz.**